



ENERGIA FOTOBOLTAIKOZ **ERAGINDAKO KONTSUMO BAXUKO** **PLANTXA ELEKTRIKOA**

Balore proposamena

Gure proiektuaren helburu edo ezaugarri nagusienetako bat, gaur egun denon kezka bati, hau da, kutsadurari aurre egitea da energia berriztagarria erabiliz. Horretarako, gure plantxari, honi konektaturik dagoen panel fotoboltaiko batek emango dio indarra.



Horrez gain, gure produktua gehienbat mendira joaten garenean edo irteeraren bat egitean erabiltzeko pentsatuta dagoenez, eramangarritasunean ere arreta handia ipini dugu. Beraz, gure proiektua nahiko txikia eta pisu gutxikoa izango da. Gainera, gure plantxari panel fotoboltaiko batek emango dionez indarra, ez du entxufe edo bateriarik behar eta ondorioz, edozein lekutan erabiltzeko aukera izango du erosleak. Bestalde, orain arte ez du inork gu bezalako proiekturik burutu eta horrek, gure produktua saltzeko orduan, erraztasuna emango digu.